



FERNANDO PRADO AYUSO, CMF

DONOSTIAKO GOTZAINA
OBISPO DE SAN SEBASTIÁN

INVITACIÓN A LA CEREMONIA DEL INICIO DEL AÑO SANTO JUBILAR 2025

30 de diciembre de 2024

Queridos hermanos y hermanas,

El próximo día 6 de enero, Epifanía del Señor, comenzaremos en nuestra diócesis el Año Santo Jubilar al que nos ha llamado el Papa Francisco. Como sabéis, el Papa Francisco nos ha enviado al Cardenal Prefecto del Dicasterio de Educación y Cultura, Mons. José Tolentino de Mendonça para inaugurar el jubileo universal y para celebrar -unidos a la Iglesia universal- la conmemoración de nuestras “bodas de diamante” (75 años de existencia de nuestra diócesis). Tal y como anuncié en mi carta pastoral “En Él, nuestra Esperanza”, en próximas fechas, se abrirá también el Año Santo Jubilar en nuestros santuarios de Arantzazu y Loyola.

Quisiera invitaros expresamente a participar el **próximo día 6 de enero, a las 7 de la tarde, en la celebración de la solemne liturgia de apertura del Jubileo en la Catedral del Buen Pastor**. Os invito vivamente a todos los sacerdotes de la diócesis, seculares y regulares, a reunirnos en el altar, junto con el Cardenal. Invito también a la vida consagrada y a todos los demás, laicos y laicas, que formamos juntos el pueblo de Dios. Con la esperanza de que el Año Jubilar sea realmente un acontecimiento importante para nuestra vida diocesana, nos ponemos en camino como “Peregrinos de Esperanza”. Pedimos al Señor que nos ayude, con la fuerza de su Espíritu, a vivir este tiempo con un corazón confiado, ofreciéndole lo mejor de nuestras vidas, como un tiempo de verdadera renovación espiritual para nosotros y para nuestras comunidades.

Sin otro particular, recibid mi más cordial saludo y mis mejores deseos para el año 2025, Año Jubilar, que recién estrenaremos.

In Corde Matris,

✠ **Fernando Prado Ayuso, CMF**
Obispo de San Sebastián



FERNANDO PRADO AYUSO, CMF

DONOSTIAKO GOTZAINA
OBISPO DE SAN SEBASTIÁN

2025eko JUBILEU-URTE SANTUAREN HASIERAKO OSPA KIZUNERAKO GONBIDAPENA

2024ko abenduak 30

Anai-arreba maiteok,

Datorren urtarrilaren 6an, Jaunaren Epifanian, Frantzisko Aita Santuak bizitzera deitu gaituen Jubileu-urte Santua hasiko dugu gure elizbarrutian. Dakizuenez, Frantzisko Aita Santuak José Tolentino de Mendonça kardinala, Kultura eta Hezkuntzarako Dikasterioko Prefektua bidali digu jubileu unibertsalari hasiera emateko, eta -Eliza unibertsalarekin bat eginik- “diamantezko ezteiak” ospatzeko (gure elizbarrutiak 75 urte bete ditu). “Harengan gure Itxaropena” nire pastoral gutunean iragarri nuen bezala, datozen egunetan, Jubileu-urte Santua ere zabalduko da Arantzazu eta Loiolako santutegietan.

Bereziki gonbidatu nahi zaituztet datorren **urtarrilaren 6an, arratsaldeko 7etan, Artzain Onaren Katedralean Jubileua irekitzeko liturgia ospetsuan parte hartzera**. Biziki gonbidatzen zaituztet Elizbarrutiko apaiz guztiak, sekularrak eta erlijiosoak, aldarean elkartzera, kardinalarekin batera. Bizitza sagaratua eta laiko guztiak ere gonbidatzen zaituztet, guztiok elkarrekin osatzen baitugu Jainkoaren herria. Jubileu-urtea gure elizbarrutiko bizitzarako benetan garrantzitsua izango den esperantzaz, “Itxaropenean Erromes” gisa bideari ekin diezaiogun. Jainkoari eskatzen diogu lagun diezagula, bere Espirituaren indarrez, aldi hau konfidantzaz betetako bihotzarekin bizitzen, gure bizitzaren onena eskainiz, guretzat eta gure elkarteentzat benetako berrikuntza espiritualerako denbora izaki.

Besterik gabe, jaso itzazue nire agurrik beroena eta nire desiorik onenak laster hasiko dugun 2025eko Jubileu-urterako.

In Corde Matris,

✠ **Fernando Prado Ayuso, CMF**

Donostiako gotzaina